

Ze barri?

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

2001ko
UZTAILA

52 zkia.

Urlatik Landetara

Leopoldo Medina
Agur udaltzain bizitzari



- ✓ Ispilu bizelatuak
- ✓ Ateentzako beirateak
- ✓ Beirate grabatuak eta landuak
- ✓ Bainugelako altzari eta manparak
- ✓ Neurri zehatzetarako armairuak
- ✓ Enmarkazioak
- ✓ Lantegietako mantenimentua
- ✓ Beira nahiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak egiten ditugu
- ✓ Beirate "fusing"ean kalitate handia

Lantokia eta Erakusketa: Herriko Plaza, 8
 Tfnoa.-Faxa: 943 79 81 78
 20550 ARETXABALETA
 Gipuzkoa



ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



EDURNE



Tratamenduak analisi morfologikoekin • Gizentasuna
 Psikoaromaterapia
 Zelulitisa • Zirkulazioa • Masajea
 Hidratazioa • Aknea • Kouperosia
 Zimurrak Ahuldura • Depilazioa
 Solariuma • Elektroterapia
(Ordua eskatu)

Aranburuzabala, 42
 Tel.: 943 71 51 54
 ESKORATZA

San Pedro 9, 1 behea
20540 ESKORIATZA
Tel. 943 71 54 34
E-maila: axtroki@topagunea.com

ARGITARATZAILEA:

AXTROKI
Kultur Elkartea

ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Garikoitz Kortazar
Andoni Bengoa
Lorea Agiriano

KOLABORATZAILEAK:

Aitor Uribeberria
Aitor Urrutia
Asier Errasti
Juanma Pagalday
Iñaki Agiriano
J.J. Arrieta
Jon Errasti
Museo Eskola
Lourdes Martinez
Edurne Unzueta
Iranzu Gabilondo

INPRIMATEGIA:

Eguzkigraf, Koop. Elk.

TIRADA:

2.000 ale

LEGE GORDAILUA:

SS - 200/99

ISSN:

1139-9856

ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten
aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Martxa laranja

Txirrindularitza ikusteko modu asko daude. Onena telebistatik omen da. Baina, beste bat ere badago, kirol hau kondaira mailara altxaerazi duena eta txirrindulariak mito bihurtu dituena. Errepide bazterrekoa da, eguzkipean edo edozein mendi erraldoi pirinioetar edo alpetarren magaletako zuhaizpe batean. Hau da aste bukaera txirrindulari bateko kronika.

Izan nuen lehen albistea Pirinioetan laurogei mila euskaldun joango zirela izan zen. Ezin nuen sinetsi. —Horrenbeste?— esan nion neure buruari. Tira, tira, guztira zenbatutakoak izango dituk, hemengoak eta gainerakoak....

—Ezetz, bada. Irratiak esan dik, laurogei bat mila—. Egia esan sinesgaitz egiten zitzaidan, baina txirrindularitza kontuetan iturri sinesgarria denez, nire lagun hau, zalantzan utzi ninduen, Frantziako telebistak ematen dituen irudi txobinisten zain, kontrastatu ahal izateko hartutako argibidea.

Eta arrazoia zuen. Ez dakit laurogei mila, beharbada gehiago..., baina ba al zegoen, bada, beste inongoa zen norbait, ala? Dena den, hau ez da datu berria ere, beti izan ohi delako antzera. Baina, aurtun Euskalteleko parte-

***“Alde komertzialetik
begiratuta, nahiko
lukete beste etxe
babesle askok Euskal-
telek izan duen propa-
ganda eta bultzada
eduki euren merkatu
printzipalenean”***

harteak jende gehiago mugitu du. Eta bertan gelditu garenon artean ere ikusmina antzerakoa zen arren, eguraldi politeko asteburu honetan, orain arte futbolak baino altxatzen ez zituen pasioak ikusteko aukera izan dut hainbat herritako jende elkartzan duen kostaldeko herri horietako batean. Laiseka iritsiko ote zen, Belokik Kivilev atzean utziko ote, Igor non ote zetorren eta, batez ere, Euskaltel-Euskadi taldearekiko zegoen identifikazio maila antzematean, errepide bazterrean zein taberna zulo



ziztrin batean geundenak elkartuz, gogora ekarri dit hausnarketa bat: nondik lortu du Euskaltel-Euskadik horrenbesteko sostengu talde bezela, txirrindularitza bezain kirol indibidualean? Niri gogorarazten dit garai batean, beste ezer ez zegoen garai hartan, inguruko futbol zaleek Athleticekoa izan behararren grina. Katalunian esango luketen bezala: “Aquest es més que un club”..., hau kirol elkarte bat baino zerbait gehiago da, alegia.

Kontua da Pirinioak Euskalteleko laranja kolorez bete direla eta hauek ez zirela ez holandarrak ezta balentziarrak ere. Euskaldunok, orain arte, identifikatzen ez gintuen laranja koloreen inguruan bildu gara, eta alde komertzialetik begiratuta, nahiko lukete beste etxe babesle askok Euskaltelek izan duen propaganda eta bultzada eduki euren merkatu printzipalenean. Nik, asteburu honi martxa laranja deitu diot, dagoeneko mende laurden bat dela, hau da, hogeitabost urte, Marokoko Errege zen Hassan II.ak, Korana eskuetan zutela, milaka hiritar oraindik espainiarra zen Saharara bidali zituen martxa berdearen gisakoa, Invictoaren azken estulen sasoi hartan.

Asteburua amaitu eta borobiltzeko, astelehen gogaikarria iristean, beste datu bat jakin ahal izan dut: Gipuzkoan, aste bukaera honetarako ez omen zegoen furgoneta bat bera ere alokatzeko aukerarik, guztiak Pirinioetan baitzeuden. Atera kontuak. Gu, badaezpada, bigarren martxa laranja presatzen hasiko gara.

Aitor Urrutia

Udaletxea berrizteko proiektua irailan onartuko da

Lanak abenduan hastea aurrez ikusi dute



Urtea amaitu baino lehen hasiko dituzte udaletxea berrizteko obrak. Horixe da, behintzat, alkatearen eta gobernu taldearen asmoa, eta, epeak betetzen badira, ordurako lanak hasita izango dira. Oraingoz, aurreproiektua aztertu dute eta hainbat aldaketa egin ostean, behin betiko egitasmoa irailan onartzea espero dute. Orduantxe egingo dute proiektuari baietza emateko Osoko Bilkura eta, ondoren, lanak adjudikatzeko deialdia. Abendurako lanak adjudikatuta edukitzea aurrez ikusi dute.

Udaletxea berrizteko lanak, legealdi honetako eginkizunik garrantzitsuenak izango dira Eskoriatzako Udalarentzat. Oraindik zehazteke dago aurrekontua zenbatekoa izango den, baina Edorta Zubizarretak *Ze barri?* aldizkariari adierazi dioenez, ehundik gora milioi pezeta izango dira. Lanak urtebeteko epean amaituta egotea espero da. Hortaz, 2003.eko urte hasierarako udaletxe berria izango dugu. Ordurako, Udaleko zerbitzu guztiak bertan eskaintzea espero da, Kultur Etxekoak eta Kiroldegikoak izan ezik.

Udaletxea goitik behera berriztuko da, hau da, kanpoaldeko paretak gordeko dira bakarrik eta barrualde guztia bota eta berria eraikiko da. Honekin batera, udaletxe ondoko erikina bota egingo da eta inguru guztia urbanizatuko da. Eskoriatzako udaletxea XIX. mendeko eraikina da. Obrek dirauten bitartean, udaletxeko bulegoak eta udal zerbitzu denak Arana kaleko lehengo erresidentziara eroango dira.

■Plenoko erabakiak

Atzo, eguena, egitekoa zen Osoko Bilkuran, besteak beste, honako gai hauek aztertu eta onartu ziren: batetik, Leopoldo Medina udaltzainaren jubilazioa onartzea eta honen ordezkia, Ibon Segura eskoriatzarra hain justu, izendatzea. Bestetik, Udal liburutegiaren proiektua onartzea.

■Akanpada

Joan zen astean bertan behera geratu bazen ere, oraingo asteburuan akanpada egingo dute herriko neska-mutikoei Alabittan. Urte askotan antolatu du uztailan akanpada Kirol elkarteko mendi sailak. Iaz, ordea, ez zuten antolatu. Aurten, berriro ere eutsi diote lehenagoko ohiturari. 8 urtetik 14ra arteko 20 bat neska-mutikok eman dute izena eta gaurtik, egubakoitza, domekara arte egingo dute kanpaldia. Mendi irteerak, jolasak, eskalada eta horrelako jarduerak egingo dituzte. Eguraldiak laguntzen badu, primeran pasatzeko aukera ezin hobea, beraz, gaztetxoentzat.

■Andramari eta San Bartolome

Sasoi batean jai garrantzitsuak baziren ere, azkenaldian ez da ezer berezirik antolatzen Mazmelan eta Gellaon. Hori bai, elizatan meza ospatuko dute aurten ere Andramari egunean, abuztuak 15, eta San Bartolome egunean, abuztuak 24. Meza ostean, berriz, luntxa izango da. Gainerakoan, Udalak ez du ekitaldi edo jarduerarik antolatu abuzturako.



Hnos. SAJERAS, C.B.



**MARGOGINTZA
DEKORATIBO ETA INDUSTRIALA**

San Pedro, 14 behea
Tel.-Faxa: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Mobila: 608 92 11 18

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi
itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki, 3/ Tel.: 71 31 29/ Eskoriatza 20540

Fagor Automotonek lantegi berria eraikiko du Industrialdean



Industrialdea garatuz doa. Fagor Automotion kooperatibak, esaterako, 5.000 metro koadroko lursaila hartuko du industrialdean, lantegi berria eraikitzeko. Dagoeneko hasi dira lanetan. Honenbestez, Fagor Ederlanen ondoan, errepidearen beste aldean, beste lantegi bat eraikiko du MCC taldeko kooperatibak. Eskoriatzakoa Fagor Automotionen hirugarren lantegia izango da, gaur egun Arrasaten eta Usurbilen ere badituzte eta. Denera, 10.000 metro koadroko azalera izango du lantegi berriak. Biltegi automatizatuak jarriko da bertan, eta Fagor Automotioneko hiru lantegietako produktu bukatuak bilduko ditu.



Obrak han eta hemen

Azkenaldian hainbat lan egiten ari dira herrian. Olazar auzoko lanak, esaterako, amaitzeko daude oraindik. Udaletxea berriztekoak, bestalde, laster hasiko dituzte eta udaletxe ondoran, Arana kalean, argazkian ikus daitekeen etxea zaharbertzen ari dira. Lan hau dela eta, bidearen zati batean garabia jarri dute eta lanok hainbat eragozpen sortzen dizkiete oinezkoei zein autoan doazenei, azken hauei batez ere, errepidearen zati bat moztuta baitago. Edozelan ere, abuztua sasoi ona da era honetako lanetarako, jende gutxiago ibiltzen delako. Pazientzia apur bat, beraz, herritarrei.



Igerilekuak, bertan geratzen direnentzat

Oraingo astean ez du eguzkitarako eguraldirik egin, lainope izan da. Asteburuan bai, ordea, eguzkitsua izan genuen erabat. Baina asteburuetan hondartzara edo urtegi-tara mugitzen da jendea. Argazkia domeka eguerdian atera genuen. Abuztuan herrian geratzen direnentzako aukera ona da igerilekuetakoa. Pizinak eguneroko egongo dira zabalik —astelehen goizetan eta domeka arratsaldeetan itxita—, 10:30etatik 20:30etara, irailaren 16ra arte.

Argitalarpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora



kutxa

fundazioa
fundación



**TOKI
ALAI
TABERNA**

**karajiloetan
espezializatua!!**

Tel.: 71 47 29



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 71 51 20

Josu Larreategi Saskibaloia entrenatzailea

“ Tau Baskonian sartu nintzenetik, beti ” gogoratuko dudan jokalaria Perasovic izango da



Tau Baskonia taldeko bigarren entrenatzailea izana da eta arabarra den arren, askotan zeharkatzen du muga honantz. Emaztea eskoriatzarra du. Talde gasteiztarrak aulkitxoan duen beteranoena da. Azken zortzi urteotan bost entrenatzaile pasatu dira bertatik eta guztiek izan dute Josu laguntzaile.

Hasteko, nondarra zara eta zein da Eskoriatzarekin duzun harremana?
Murgian jaio eta hamalau urte nituela Gasteizera joan nintzen bizitzera. Orain han bizi banaiz ere, asmoa Eskoriatza aldera etortzekoa daukagu. Emaztea hemengoa da eta bada-kizue, honetan ere emakumeak nagusi. Beno, baina ni ere oso gustora etorriko naiz herri honetara.

Tau Baskonia taldeko bigarren entrenatzailea izan zara; zein izan da zure ibilbidea saskibaloian?
Txikitatik gustatu izan zaizkit kirol guztiak eta probatu ere gehienak egin ditut. Saskibaloian hemeretzi urte

nituela hasi nintzen gaztetxoak entrenatzen. Hortik Baskoniako beheko mailetan sartzeko eskaintza izan nuen, entrenatzaile ikasketak egin eta poli-ki-poli-ki gorantz joan naiz bigarren postura iritsi arte. Atzera begiraturaz gero, hamabi urte egin ditut Tau Baskonian.

Saskibaloia profesionalean euskaldun gutxi dago; ez ote dugu nahikoa altuerarik?

Ez da altuera kontua bakarrik; talentua, abiadura, trebetasuna... behar dira. Eta, hemen, jokalaria gutxiak betetzen dituzte ezaugarri horiek, ez baitira txikitatik lantzen. Dena den, aurtengo euskal selekzioa izatea ere lortu dugu eta hori izan daiteke lehenengo pausua euskaldunok ere anima gaitezten eta saskibaloia gehiago praktika dezagun.

Kanpotik dirudien bezain lilurgarria al da saskibaloia mundua?

Alde batetik, bai. Goi mailako talde batean aritzeak gurearekin konparatuz oso bizimodu desberdina duen jende interesgarria ezagutzea, eta emozioz beteriko momentu asko pasatzea dakar. Baina, kanpotik ez dirudien arren, partidu bakoitzaren atzean lan ordu asko, jai egun gutxi eta egunetik egunera astunago egiten zaizkizun bidaiak ere badaude.

Zeintzuk dira bigarren entrenatzaile baten funtzioak?

Charter

Eta gainera, zerbitzua etxera!

Aranburuzabala, 3
tel.: 943 71 45 46

Ordutegia: 9etatik 13 t'erdietara
eta 17etatik 20etara

Villar
Ileapaindegia

Olazar auzoa, 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

“Saskibaloian bizi izan dudan unerik txarrena, duela lau urte Manresaren aurka Espainiako liga galdu genuenean izan zen”

Entrenatzaile izan naizen urte haue-
tan tekniko askorekin lan egin dut eta
bakoitzak funtzio desberdinak eman
dizkit: Scarioloren garaian, gauza
ugarri egin behar nituen, bai kantxan
bai kantxatik kanpo, hau da, aurkako
taldearen azken lau partiduak ikusi,
jokaldi klabeekin jokalariek ikusteko
bideo-montaje bat egin, jokalariek
banakako teknika zein taldekoa lan-
du... Ivanovichen garaian, ordea, bera-
rentzat askoz ere garrantzitsuagoa
zen jokalarien mentalitatea zain-
tzea.

Bigarren entrenatzaileak beti
lehenengoak esaten duenera
moldatu beharra dauka, baina
urtetik urtera gero eta espe-
rientzia handiagoa duzu entre-
natzaile asko ezagutu izanaga-
tik eta, azkenean, zure aholkuak
ere erabakigarriak izan daitez-
ke une batzuetan.

**Nolako harremana izan duzu
lehenengo entrenatzaileekin?**
Generalean ona izan da. Batzue-
kin, lan harremana besterik ez
da izan eta, beste batzuekin, Gas-
teiztik joan arren lagun izaten
jarraitzen dugu.

**Zein entrenatzailerengandik
ikasi duzu gehien?**

Denengandik ikas daiteke zer-
bait. Entrenatzaile bakoitzak
bere helburua modu desberdi-


nean lortu nahi izaten du eta denek
dute zerbait erakusteko, baita ACB-
koak ez diren maila baxuagokoek ere.

**Jokalari asko ere ezagutu ahal izan
dituzu. Baduzu besteak baino gehia-
go gogoratuko duzun norbait?**

Jokalariak zuregana hurbiltzen dira
baina beti zerbait lortu nahian etor-
tzen dira. Urteak pasatu ahala espe-
rientzia handiagoa hartzen duzu eta
distantzia mantentzen ikasten duzu
gero zure lana ondo egin ahal izate-
ko. Tau Baskonian sartu nintzenetik,
beti gogoratuko dudak jokalaria Pera-
sovic izango da, bigarren entrenatzaile
izan nintzen hasierako urteetan asko
lagundu baitzidan eta eredugarria izan
baitzen niretzat.

**Zeintzuk izan dira entrenatzaile
moduan pasatu dituzun momentu-
rik onena eta txarrena?**

Onera, Europako kopa irabazi genu-



“Saskibaloia utzi gingo dut. Arrasaten zabalduko duten Forum kirol dendan hasiko naiz lanean”

nean izan zen. Garai hartan esperientzia
gutxi neukan eta orduan konturatu nin-
tzen zenbat lan egin behar den kopa-
ren bat irabazteko. Momenturik txar-
rena, duela lau urte Manresaren aur-
ka Espainiako liga galdu genuenean
izan zen. Eskuetan izan genuen eta
ihes egin zigun.

**Ez al duzu sekula lehenengo entre-
natzaile izateko tentziorik izan?**

Bai, aurten izan ahal zen salto hori egi-
teko momentua eta horretarako ilu-
sioa ere banuen. Baina gauza asko
baloratu beharra zegoen, urte bakoit-
tzean leku desberdin batean bizi-
tzea merezi ote duen pentsatu
behar genuen. Eta saskibaloitik
kanpo lan aukera bat izan duda-
nez, horri heltzea erabaki dugu.

**Beraz, utzi egingo duzu saski-
baloia?**

Bai, momentuz horrela izango da.
Arrasaten zabalduko duten Forum
kirol dendan hasiko naiz lanean.

**Euskara ikasten ere ari omen
zara...**

Ama bergararra zen, baina Ara-
ba aldera joan zenean galdu egin
zuen euskara. Orain, berresku-
ratu nahian ari naiz eta eskoria-
tzarroi arazo barik dena ulertu
eta gutxi barru neu ere hemen
bezala berba egiteko gauza iza-
tea dut helburu.

FAGOR



Fagor Ederlan, S. Coop

**AUTOENDAKO
OSAGAIK**

Gaztainadui, 42
20540 ESKORIATZA
Tel.: 943 71 90 00



**MONDRAGON
AUTOMOCION**

Leopoldo Medina

Agur udaltzain bizitzari

Datorren uztailaren 30a izango da Leopoldo Medinaren azken lan eguna. 30 urte ostean, oroitzapen gozoz beteta esango dio agur udaltzain izateari. Hasieran kosta egingo zaiola erretiratu bizitzara ohitzea dio, baina aurkitu du hemendik aurrerako zeregina, hamabost egun eskas dituen ilobatxoazaintzea.



Eskoriatzako neska-mutiko talde bat joan ei zen Donostiara txangoan eta handik bueltan ia zer ikusi zuten galdetu zioten: itxasoa, Igeldo, Aquariuma..., eta Leopoldo pila bat, erantzun omen zuen euretako batek. Izan ere, Leopoldo Medina esan edo udaltzaina esan, gauza bera izan da 30 urtetan gure herrian.

Caceresko herri txiki batean jaioa, 1965. urtean heldu zen Eskoriatzara Leopoldo. 10 urtetan Aretxabaletako "Cerrajería Valle Leniz" lantegian ibili zen lanean eta bitartean Aretxabaletako zinean filmeak botatzen zituen, gaztetan zine ikasketak egingo baita. 1971an hasi zen Eskoriatzako udaltzain lanean. Postura aurkeztu zen bakarria izan bazen ere, sarreara azterketa egin behar izan zuen. Lehenengo zortzi urtetan, ordea, ez zen bakarrik egon, Toribio Zubiak lagun egin baitzion. Baina hau erretiratu zenean, ez zuten beste inor hartu eta bakarrik moldatu behar izan da urte hauetan guztietan.

Zeregin ugari bakarrarentzat

Kalkuluen arabera, mila biztanleko udaltzain bat izatea tokatzen bada ere, Eskoriatzako bakarria dago. Beraz, zere-

gin asko gizon bakarrarentzat. Hala ere, Leopoldo ez da sekula larritu, ezta iturgin, igeltsero edo zine operadore lanak egitea tokatu zaionean ere. "Eskoriatzako zinema itxita zegoen eta "Herrikoia" zeritzon elkarteak filmeak botako zituen norbaiten bila zebilen. Arrasateko Amaia antzokiko nagusiarengana jo eta ezusteko galanta hartu zuten herriko udaltzain zine operadorea zela esan zienean" dio Leopoldok.

Astean lau zine emanaldi egoten ziren: eguen eta zapatuetan bakarria, eta bi emanaldi domeketan. Poliki-poliki, ordea, zinemaren egoerak okerrera egin zuen eta inor ez zenez konpontzeaz arduratu, itxi egin behar izan zuten. Hamabost urte eman zituen Leopoldok filmeak botatzen.

Iturgin egitea ere behin baino gehiagotan tokatu izan zaio udaltzain honi. Lehen, kaleko konponketak egiten zituen brigadako langile bakarria zegoen. Beraz, Leopoldo eta biak ibili behar izaten ziren ur hodi bat, apurtutako espaloizati bat edo bide bazterrak konpontzen. Ondo gogoratzen da Leopoldo goizeko ordu txikietan ere behin baino gehiagotan jai-

ki behar izan duela: "Baserritarren bat etxera bidean zihoala ur hodi bat apurtuta ikusi eta etxera deitzen zidan nahiz eta goizeko hirurak izan. Konpontzeko ez bazen ere ura mozteko behintzat jai-ki behar".

Ura, gainera, Bolibarko errekatik hartzen zen garai hartan eta ez orain bezala Urkulutik. Udazken sasoiaren zenean, iraila ingurua, ura asko gutxitzen zenez gaueko hamarretan ur biltegirara igo eta moztu egiten zuen ura Leopoldok, eta goizeko seiak aldera berriz eman, herritarrek ura izan zezaten.

Uraren fakturak kobratu, postetxean lagundu... zer ez du egin Leopoldok? Gaur egun ez ditu zeregin hauek guztiak baina udaltzainaren ardurez gain mezu-lari lanetan ere ibiltzen da oraindik, Arrasate, Bergara edo Eibarrera joanez.

Esker txarreko lanbidea

Udaltzainak, lan asko egin eta herritarren aldetik eskerririk asko gutxi jasotzen dituzten langileak dira. Isunak direla, berri txarrak direla... legea betearaztea ez da samurra izaten. Leopoldok, ordea, oroitzapen txarrak ahaztuta izango ditu

FAGOR



ELEKTRATRESNA

TXIKIKO

NEGOZIOA

Aingeruguarda ibilbidea, z/g

Tel.: 943 039 100 • 943 71 54 52 (SAT)

onak besterik ez dauzkalako gogoan. "Herritarrek hasiera hasieratik hartu ninduten begi onez eta sekula ez dut arazo larririk izan herrian. Jaiak direla eta kanpotik etorritako lagunek lan haundiagoa eman izan didate bertakoek baino" dio pozik Leopoldok. Udaltzain bakarra izanda eta ezaguna, gainera, legea betearaztea ez zen batek uste bezain samurra, sarritan eskatzen baitzioten isunak kentzeko edo gaizki egingakoak ez ikusteko. Eta hain herri txikia izanda eta denak elkar ezagututa zer egin?

Udalbatza asko ezagututakoa

Alkate eta udalbatza asko ikusi ditu Leopoldok Eskoriatzako udaletxetik pasatzen. Sei alkate izan dira guztira baina gehiago ere izan zitezkeen, izan ere alkate honen aurrekoa hamabi urtez egon baitzen. Ez du, gainera, inorekin arazorik izan eta beti esan izan diote arazo larria datorrela atzemanaz gero erantzari deitzeko.

Hil honen 24an agurra eman zioten udaletxeko langile eta politikoei afari goxoa eginez. 30ean, berriz, agur esango dizkio bulego eta uniformeari. Hala eta guztiz abuztuaren lehen oraindik lanera bueltatuko da herriko eskolak desinfektatzera. "Neu arduratu izan naiz beti zeregin horretaz eta aurten ere erretiratu aurretik eskola guztiak garbitu gura dut" dio Leopoldok.

Udaltzain berria

Leopoldori agur esatearekin batera udaltzain berriari ongi etorria eman behar zaio.

Irailean hasiko da hau lanean, baina jadanik egin dira hautaketa frogak. Sei lagun aurkeztu ziren posturako eta aste honetan bertan egindako osoko bilkuran Ibon Segura eskoriatzarra aukeratu dute. Udaltzain bakarra izaten jarraituko dugu Eskoriatzan, momentuz behintzat ez da eta gehiago hartzerik aurreikusten.

Lasai egon daiteke Ibon, Leopoldo alboan izango du edozein eratako laguntza edo aholkuak behar baditu.

“ Eskoriatzarrek familiakoa ” bezala hartu naute

Erretiratzeko gogoz?

Batetik bai, 62 urte dauzkat eta bada beste zeregin batzuetan hasteko ordua. Badakit, ordea, lehenengo egunetan behintzat kosta egingo zaidala lanik egin barik egotera ohitzea.

Gaztetan udaltzain izango zinela inoiz pentsatu al zenuen?

Ez, ni txikia nintzenean ez genuen horretan pentsatzen. Hala eta guztiz ere, beti gustatu izan zait zinearen mundua eta horregatik egin nituen zine operadore ikasketak. Bizitzak, ordea, beste lanbide bat jarri zidan eskura eta gustura ibili naiz.

Balorazio positiboa egingo zenuke?

Oso positiboa. Eskoriatzarrek familiako beste kide bat bezala hartu naute eta horrek asko erraztu dit lana. Laguntza behar izan dudanean ere nire alboan egon dira.

Ez duzu inorekin arazorik izan?

Kanpotarrek arazo gehiago izan ditut herrikoekin baino. Norbaiti aurre egin beharra tokatu zaidanean, gainera, herritarren laguntza ere jaso izan dut.

Etxekoak ez al zaizkizu inoiz kexatu gauden ere etxera deitzen zizute-lako?

Ez... zer egingo zuten bada, nire lanbidea zen eta onartu egin behar. Emaztea ohitu egin zen gaueko ordu bietan edo lauretan ohetik jaiki eta lanera joaten ikustera.

Zenbat alkate ezagutu dituzu?

Sei eta oso ondo konpondu naiz guztiekin. Gehiago ere izan zitezkeen. Izan ere, honen aurrekoa hamabi urtetan egon zen, hau da, hiru legealditan.

Zer egingo duzu hemendik aurrera?

Uztailaren 14an ilobatxoa izan nuen eta pozik aterako naiz berarekin pasiatzera.

Bitxikeria bat baino gehiago gertatuko zitzaizun urte hauetan?

Bai, asko, ez atseginen bat egon bada ere, gehientsuenak oso politak. Orain bat batean, ordea, ezingo nizuke bat ere kontatu.



REPARACIONES
LENIZ, C.B.

TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 715061



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Eta zu, nora zoaz oporretan?


Azkenean! Kosta zaio, baino hel-
du da uda!. Bai, bai, badakit urta-
roa (teorikoki behintzat) orain dela
hilabete pasa hasia dagoela, bai-
na benetako udari buruz ari gara,
kolaboratzaile guztiok urte oso-
an zehar gure miseria guztiak
sendatuko dituen ukendua izan-
go balitz bezala itxaroten dugun
uda horri buruz, maiuskulaz idaz-
tea merezi duen uda horri buruz.
Garai honetarako gehienok era-
bakita izaten dugu gutxigora behe-
ra abuztuan zehar nora joko
dugun, urrutira joatea nahi dute-
nek batez ere, eta agian izango
da horien artean gure orrialdee-
tan azaldutako bidaiaren batek ins-
piratutakoren bat; pozik izango
ginateke hala balitz! Hala ere,
askotan horrela izan dela eman
arren, "Eskoriatzarrok Munduan"
izeneko atal honek izan du hel-
buru bat herrikoen oporraldien
eskaparatea izatearen gainetik;
atzerrian ibilitako lagunek izan-
dako bizipenak jasotzeko gune bat
izatea nahi izan dugu nahiago,
askotan gure elkarrizketatuek kon-
tatu dizkiguten istorio asko bide-
an gelditu diren arren. Abuztu
honen ondoren, beste asko izan-
go ditugu kontatzeko, baina ale
honetan atzera begira jarriko gara,
gure orrialdeetatik pasatu diren
hainbat lagunei ostutako argaz-
kiei begiradaxo bat botatzeko. Ia
irailean hauek bezain politak diren
asko ekartzen dizkiguzuen!




Asko dira azken urteotan beren ikas-
ketak osatzeko atze-
rriara jo duten gazte
eskoriatzarrok, eta
bueltan etortzerako-
an beraiekin ere
egon nahi izan dugu
**Suitza, Irlanda edo
Escozian** eraman
duten bizimodua zer
nolakoa izan den
jakiteko; Larraitz eta
Mikel adibidez,
Edinburgon izan
dira elkarrekin bizi-
tzen, eta ondo apro-
betxatu dute beste
herrialde bat ezagu-
tzeko aukera. Argaz-
kian, **Rob Roy** eza-
gunaren hilobia bisita-
tatu zutenekoa.



Gure orrialdeetan azaldu diren argazkirik exotikoenetako batzuk **Afrikan, kon-
tinentean beltzean**, ibilitako lagunek erakutsi dizkigute. Asko izaten dira bertara
jotzeko orduan gertu gelditu eta **Marokko** edo **Tunisiarantz** jo dutenak; baina
badira beste batzuk urrunago joan eta **Kilimanjaro** mendia oso gertutik ikusi
dutenak ere. **Saharako dunetatik** hasi eta **Zanzibarko kostalde tropikale-
raino**, sorpresaz betetako lurraldea aurkitu dute beti eskoriatzarrek Afrikan.



Putzua zeharkatu eta **Amerikara** joan diren eskoriatzarren artean ere, denetik dago. Badira **Txiapas** edo Hondurasera bertakoeekin lan egitera joan direnak, **Nikaraguara** bizimodua bilatzera joan direnak, **Argentina** eta **Txile** zeharkatu eta **Patagonia** hotzeraino heldutakoak, edo eta **Kuban** Karibeko epelean gelditu direnak; eta denek izan dute asko kontatzeko.



Bidai luzeak egiterako orduan badira kokiltzen ez direnak ere, eta milaka eta milaka kilometro zeharkatuz, **Australiaraino** joandako baten berri ere eman genizuen *Ze barri?* aldizkari-ko 39.alean. Surfa egiten edo urpean ibiltzen bere lehen urratsak emateaz aparte, **Sidney** ere hiri handi batekin egin zuen topo Alexek Antipodatan. Eta, argazkia ateratu zuen...

**Oporretan zer hartuko duzu gusturen?
Eta, zer da oporrek duten txarrena?**



Carlos Gomez

Deskantsua eta nire kasa ibili ahal izatea, zalantza barik! Txarrena, berriz, azkar amaitzen direla.



Estefania Cornejo

Oporrek lasaitu egiten dute eta hori oso ona da. Bestalde, Errioxara joan eta familiarekin egoteko aukera ere izango dut. Txarrena? Diru gehiegi gastatzen dugula, baina tira!, oporrak dira eta...



Maria Teresa Santiago

Lanik egin behar ez izatea da onena, deskantsu behar handia dut! Agian, motzegiak izaten direla da txarrena.



Tina Clemente

Ni etxeko andrea naiz, beraz, oporrik ez dago niretzat. Baina, tira, orain behintzat erlojuaren agindura ibili beharrik ez dugu izango. Zamorara joango gara. Oporrak guztientzat dira onak, ez dute ezer txarrik.



Casilda Martin

Deskantsua. Ni neu Extremadurara joango naiz, Quintanara. Zoritzarreko istripuak dira okerrena. Oporretara joatea pozgarria da baina are pozgarriagoa bueltan guztiok elkar ikustea.



Zurine Pagaldai

Lagunekin egoteko denbora gehiago izatea, gurasoek gure kasa ibiltzen uztea, eta kanpora ere joango naizela, Huescara eta Alcoceverrera. Opor konpletoak izango dira nire ustez! Oporrak gaizki banatuta ditugu, udan gehiegi eta Aste Santuan gutxiegi. Hori txarrena!



MIRVAT S. Coop. Ltda.

Aingeru ibiltokia, 41
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 45 06
Faxa: 943 71 50 05

**AZKOAGA
ESTANKOA**

Zure Zerbitzura

Golo
gazte moda

Tel.. 943- 71 45 61

GAIA

Telelana edo etxetik lan egitea

Non dago azpikeria?

Telelana. Eta aldeko iritzia. Ze Barri?ko hauek ez dakite zer asmatu ere. Dena den, aldeko iritzia eman aurretik kontu pare bat bere tokian jartzea derrigorrezkoa ikusten dut. Bat: lana ez da aukera. Gehienok lana egitera behartuta gaude. Bi: telelana bere izaeragatik ezin da unibertsal bihurtu, hau da, lan gutxi batzuk izango dira lan zentrutik edonora atara ahal izango direnak. Hiru: gutxi, oso gutxi, dira afizioa eta ofizioa bat egiten dutenak. Zeozer jan behar eta ahal dugunean egiten dugu lan, hobeia edo txarragoa baina ahal duguna, ez nahi duguna (genukeena).

Goikoa irakurri ondoko lehendabiziko konklusioa: eztabaida honek moderno kutsua izan badu, interesa berriz... ez behintzat gehiengoarentzat, telelanaren ametsari gutxi batzuek besterik ezin diezaiokete heldu eta: bulegariak, komertzialak eta soldatapeko "profesio liberala" dutenak hain zuzen. Gutxi horien artean izango dira bai lanera gustura joango direnak, baina apustu egingo nuke gutxiengoaren gutxiengoa direla. Eta lanera bizimoduaren poderioz behartuta doazenez zer lortzen dute, ze gose eta ze egarri asetzen dute lanarekin?. Soldata batek erosi ditzakeenak besterik ez. Eta "erosi" hitza tartean izanik behar fisikoak izan behar dira nahi ala ez. Izpirituarenak ordea... Aipatutako ofizioen artean lan zentruak aspalditxo utzi zioten elkartasun eta anparu gune izateari, elkarren arteko lehia eta konpetentzia ring edo stadium bilakatu dira.

Kontuak honela izanik, nola esango diogu ba ezetz telelanari? Nork egingo dio atzera ordutegia berak antolatzeari? Nork ukatuko du bere ingurugunea aukeratzea? Nork ez du bere lagunen artean izatearen aldeko apustua egingo? Bada aukera izango banu nik ez behintzat. Eta azken esaldi honetan dago zirkulua ixten duen hitza: "aukera". Telelana aukeran ematen badigute, non dago azpikeria? Nahi ez duenak ez dezala hartu eta kitto. Eta behartuta bada, ez dago eztabaidarik: lana bera letxe, halabeharrezkoa. Eta point.

Non ikusten diote bentaja?

12:17 p.m. Domeka. Telelana. Telelineaz lana egitea. Lana etxetik egitea.

Ez zait asmakizun hau horren erakargarria iruditzen, zer esango dizuet, ba. Begira ni neu ere, zein eguntan eta zer ordutan nabilen, jo ta fuego, tikli-tikli-tikli teklatua astinduaz. Bakarrik nago, gainera, inguruko guztiak —domeka dela, eta beraz, jai eguna—, joan egin baitzaizkit; ni, berriz, lanean. Telelanean.

Bitartean, bazkaria erdi-prestatu eta etxeari txukuntze-buelatxo bat eman diot inspirazio-olatuak neurona astintzera noiz etorriko zain nagoen bitartean... Eske rrak, gainera, domeka dela, bestela hor ibiliko nintzateke seme-alabak eskolarako edo, uztaila izanda, udalekuetarako gobernatu eta eramaten, gero, gainera, irten beharra eguneroko enkarguak egiteko aprobetxatzen, egunkaria erosi, etxeko gailuren baten teknikaria baletor hura atenditzen, telefono deiak jasoten, ostera ere neska edo mutikoa gaixotu delako mendikuarenera eramaten... Telelanean, hain zuzen ere. Bentajarik ere baduela diote batzuek; besteak beste, nire alboko "modelnoak" ere hala uste du. Ez dakit, ba, non ikusten dioten bentaja, ez bada etxean arduraren bat duten inguruko guztiak ikus diezaioketee-na. Izan ere, haiek —nire kasuan, nire konpañera del almak— majo asko jarraitzen dute ohiko lan ohitura-rekin, hau da, lantokira joan, iristean markatu, egin beharrekoak egin, ostera ere markatu irteteko, eta azken markatze honekin batera, akabo, bukatu da lan eguna. Horretarako, gainera, hango egin beharrekoarekin baino ez dira ibili bitartean.

Ni, berriz, etxean, enpresaren telelanarekin batera, etxean sortzen diren gainontzeko guztien betebeharrarekin, gau eta egun, astegun eta asteburu, uda eta negu —inspirazioaren apetaren arabera—... Nik garbi daukat Patarroyo doktoreaz aparte inork ez duela ezer asmatzen gizateriaren onerako, lasaitasunerako eta patxadarako, eta are gutxiago, lan egitearen inguruan bada. Zer uste duzue, ba, G-8 bedeinkatuko horiek euren buruak lanean jarriko dituztela langileon mesedetan, ala?

jone eta jojo

ZE BARRIren atal hau, garaiei egokituz, interaktiboa egin nahi izan dugu. Dakizuen moduan, atal honetan Jonek eta Jojok gai jakin bati buruzko eritzi kontrajarriak botatzen dituzte... Baina orain zuek, irakurle guztiak ere, zuen keja, iradikizun, protesta, animo, irain, piropo edo dena-delakoak Jone eta Jojori helarazi diezaietzakezue.

E-mail bat bidali ondorengo helbide elektronikora, bertan nahi duzuen hori garbi jarriaz:

jojone@euskalerrria.org

BEKAK

- Unibertsitate ikasketa eta goimailako ikasketetarako bekak. Eusko Jaurlaritza. Ikasturtea 2001/2002. Epea: urriak 15.
- Unibertsitateko ikasleentzako mugikortasun-bekak. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. 2001-02 ikasturtean ikasketak beren erkidegotik kanpo egiten dituzten ikasleendako. Epea: urriak 31
- Jose Antonio Loidi ikerketabeka, arlo hauek aztertzeko: antropologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika. Irun. Epea: irailaren 10etik 28ra.

JARDUERAK

- Zinema Kalean. Ekainetik irailera arte, Donostiako kultur etxeek, ziklo ezberdinetan banatutako 23 film aurkeztuko dituzte, hiriko zenbait toki irekitan. Doan. Azken filma, irailaren 8an.
- Folklorea. "XIV. Festival de Folklore Internacional". Loiolako pilotalekuan, uztailaren 29an.

IKASTAROKAK

- Gipuzkoako Gurutze Gorriaren prestakuntza-jardunaldiak Hainbat ikastaro. Epea: abenduak 1.

SARIAK

- Komikia. "Cima 2001" komikilehiaketa. Ponferradako Udala. Epea: abuztuak 15.
- Ipuinak. "Errenteria Hiria ipuin lehiaketa", euskaraz edo gaztelaniaz. Epea: Urriak 31.
- Granadako Errealizadore Gazteen jaialdia. Epea: abuztuak 31.

LANA

- Idazkaria eta koordinatzailea. Bergarako Jardun elkarte. Epea: irailak 7.
- Dinamizatzailea. Jardun elkarte. Egun erdiko jarduna. Epea: irailak 14.
- Begiraleak. Jardun elkarte. 2001-02 ikasturterako. Curriculumak bidaltzeko epea irekita dago.
- Udaletzeko garbitzailea. Albizturgo Udala. Epea: uztailak 30.

- Euskararen Erabilpenaren Normalizaziorako Teknikaria. Urduñako Udala. Unibertsitateko Diplomatura izatea. 4. hizkuntza-eskakizuna. Aldi baterako kontratua. Epea: uztailak 31.
- Gipuzkoako Foru Aldundia. 21 lanpostu betetzeko lehiaketa-oposizioa deitu du Gipuzkoako Diputazioak. (Hauen denen gaineko informazio zehatzagoa eta osatuagoa, Arrasateko eta Bergarako Gazte Informazio bulegoetan. Telefonoak: 943 77 00 65 eta 943 77 91 57).

KANPALDIA

- Kirol Elkarteko mendi sailak antolatuta, neska-mutiko gazte-txoentzako kanpaldia asteburuan Alabittan. Mendi irteerak, eskalada, jolasak e.a.

LEHIAKETAK

- Jokin Zaitegi itzulpen laburren XV. sariketa. Lehiaketa honetan edozeinek har dezake parte. Aurtengo gaia "Energia iturriak XXI. mendean" izango da, eta lehiaketara munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkezteko daitezke. Irabazleak 1.250 euro eskuratuko ditu eta bigarren saria 625 eurokoa izango da. Lanak urriaren 31 baino lehen entregatu beharko dira. Argibideak AED elkartearen, 943 77 12 28 telefonoan.
- Argazki lehiaketa deitu du Arrasateko Udalak. Lanak aurkezteko epea urriaren 11ra arte izango da zabalik. Zurbeltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira. Argibideak udaletxean, 943 79 09 00 telefono zenbakian.
- Komiki lehiaketa. Elgoibarko Kultura Zerbitzuak eta Kokoe komikilarien taldeak komiki lehiaketa antolatu dute. Gura duenak parte har dezake lehiaketan. Hiru sari nagusi izango dira: 80.000 pezeta lehenengorendako, 60.000 pezeta bigarrenarendako eta 40.000 pezeta hirugarrenarendako. Urriaren 11 arte izango da lanak aurkezteko epea: Kultura Zerbitzua, Nafarroa plaza 3. 20870 Elgoibar.
- Kirol materiala euskaraz sortze-

ko beka, Deba arroko euskara eta kirol zerbitzuek deituta. XII.aldiaren helburua da hiruroi lotako fitxa didaktikoak sortzea: naturako ekintzen gainean, oinarrizko soin hezkuntzaren gainean eta xakearen gainean. Edozeinek eska dezake beka, baina kontuan eduki behar da ez dela zuzeneko itzulpenik onartuko. Norbera nahi beste beketara aurkez daitezke. Beka bakoitzak 500.000 pezetako ordainsaria izango du. Lana egiteko epea beka esleitzen denetik hasita bost hilabetekoa izango da. Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 18a izango da. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

TELEFONOAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943-714407
Udal Bulegoak	943-714532
Udaltzaingoa	943-714407
Euskalgia	943-792168
Kultur-Etxea	943-714688
Gizarte-Laguntzailea ...	943-713136
Kirolletoa.....	943-715328
Liburutegia.....	943-713135
Luis Eceiza.....	943-714938
Jose Arana-Almen Ikastola	943-714486
Almen	943-714964
Museo-Eskola	943-715453
Ze Barri?	943-715434
Talde Antimilitarista ...	943-714537
Irakasle Eskola	943-714157
Osakidetza	943-714452
Telesko	943-714917
Taxia	943-714059

BESTELAKOAK

Eskualde-Ospital (Arrasate) ...	943-795300
Gurutze-Gorria (Bergara)	943-765576
Ertzaintza (Arrasate) ...	943-797199
Suhiltzaileak (Oñati) ...	943-792800
Renfe (Zumarraga)	943-721515
Renfe (Gasteiz)	945 232030
Pesa (Arrasate)	902 101210
Larrialdiak (Arrasate)...	943 771043
SOS Deiak	112

Taberna eta jatetxeen GIDA

IRRINTZI
taberna



Hidalga, 5

MIRENTXU



Hidalga, 10
Tel.: 943 71 41 67

BENTA-MOTZ

eguneroko
menua
goizeko
6etatik irekita

Gaztañadui, 21
Tel.: 943 71 48 22

NAIRA
taberna

Giro atsegina

Aranburuzabala, 16
Tel.: 943 71 46 71

CIPRIS
Pub



Aranburuzabala, 8
ESKORATZA

LAGUNAK

DASTALEKU
Tlf. 943714063

ESKORATZA

ALDATZ
taberna

Musika ona
entzun dezazun

Tel.: 943 714171

OTZETA
taberna




Aranburuzabala, 7
Tel.: 943 71 55 07

COMPOSTELA
TABERNA

olagarro
espezialitatea

San Pedro, 12
Tel.: 943 71 48 70

 **CITROËN XSARA BERRIA**

Seguruago bidaia dezazun



Promozio berezia
450.000 PZTA.
aurreztuko dituzu

Citroën Xsara berria gonbidapena da segurtasun handiagoarekin bidaia dezazun. Autoan sartu eta berehala txundituta geratuko zara bidaiaz gozatzeko egina dagoen ibilgailuarekin: motor berriak (1.6 i 16 v 110 ZP eta 2.0 16 v 137 ZP), nabigazio sistema CD kartografikoarekin, ordenagailua auto barruan, sei CD rako kargadorea, audio sistema sei bozgorailurekin, aire-girogailu automatikoa... Zu babestuta sentiarazteko aurreko aire-poltsa moldagarriak eta albokoak, balaztatzea elektronikoki banatzen duen ABS sistema, alboko kolpeak saihesteko sistema, asistentzia aldakorrekoko direkzioa. Eta hori gutxi balitz, eskaintza ezin hobea: 450.000 pezeta aurreztuko dituzu. Informa zaituz www.citroen.es helbidean: web orri horretan zure gustuko Xsara berria aukeratu, gomendatzen dugun salneurria aztertu eta, horrez gain, CITROËN CREDIT bitartez autoa ordaintzeko finantzazioa jakin ahal izango duzu. Eta orain, zure poltsikoko telefonoaren bidez www.citroen.es helbidera konekta zaituzke.

Ekipamendua bertsioen arabera. *Aurrezkitia salneurriaren arabera, gomendatutako prezioak (BEZ eta matrikulazio zerga barne). Ez da metagarria. Baliozkoa stockean dauden autoendako, penintsulan eta Balear Uharteetan. CITROËN informazioa: 902 44 55 66.

CITROËNEK EDOZER EGIN DEZAKE ZUGATIK

ETORRI ETA IKUS ITZAZU:

Chapime tailerrak.
Citroëneko kontzesionario ofiziala,
Araba etorbidea z/g. 943 79 45 22. Arrasate


CITROËN